

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA


## Txillardegi: 75 urte

**D**atorren irailean beteko ditu Jose Luis Alvarez Enparantzak 75 urte, eta urteurren horren aitzakiaz hainbat jardunaldi eta ekintza antolatuko dira uda ondorenean. Gisakoa da hainbeste merezimendu pilatu duenari bizi den artean adieraztea gure omena eta esker ona, eta poztekoa omendua sasoiari eta lanean ari dela ikustea; izan ere, bi liburu ateratzekoak ditu hurrengo asteotan: bata, *Santa Klara gure uharte ezegaguna*, Donostiako txoko horri buruzkoa, eta *Euskararen aldeko borrokan*, hizkuntzaren gaineko bere saiakera laburren bilduma.

Zurikeria inoiz maite izan ez duenari hagiografiak egiten ere ezin hasiko gara orain. Beraz, Txillardegiren ekarpen erraldoia laburtzeko inongo asmorik gabe, haren ibilbideko ideia nagusien errepaso egiten aritu naiz, denboraren joanak ematen digun abantailaz balorazio txiki bat botatzeko.

Panoramika azkar batean, deigarria egiten da zenbateraino izan den Jose Luis intuizio-gizona. Etorkizunera argi ikusi, bidea markatu, eta bide horretan buru-belarri abiatu dena. Ez dago zalantzarik, bestalde, bide horrek goitik behera baldintzatu duela XX. mendearren bigarren erdia, eta horrenbestez baita gutako gehienon bizitza ere. Eztabaidagarria izan liteke, berriz, zenbateraino asmatu duen intuizio horietan guztietan.

Hasteko, aurrekariak izan bazituen ere, Txillardegiri zor diogu aberriaren funtsa hizkuntzan finkatzea. Arraza, foruak, ohiturak eta bestelako oinarriak erabili izan ziren ordura arte, eta berak argi bezain gogor defendatu zuen gaur



ALBERTO ELIZEGI

bistako eta ukazina iruditzen zaigun ikuspegia: euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk, ez borrokatzea merezi duen euskal aberririk. Era berean, euskara biziko bazen batasuna behar zuela lehen momentutik aldarrikatu zuen, eta horren alde jarri bere ahal guztiak. Historia ofizialak 68ko Arantzazu aipatzen du beti, baina ezin dugu ahaztu 64ko Baiona.

Txillardegiren sumari zor zaio, halaber, bere garaiko jeltkideak egonean goxo zeudela eta halaxe iraungo zutela konstatatzea, eta frankismoari aurre egingo bazitzaion ez zegoela erbesteko Jaurlaritzaren eta Mendebaldeko aliatuen intxaurren zain gelditzerik. Horretan historiak arrazoia eman badio ere, ez zuen asmatu PNV, karlismoaren antzera, zaharkitua eta gaunditua geratuko zela iragartzean. Profetak nahi baino epelxeagoa gertatu baita gure herri hau.

Panoramika azkar batean,  
deigarria egiten da zenbateraino  
izan den Jose Luis intuizio-gizona.

Etorkizunera argi ikusi, bidea  
markatu, eta bide horretan  
buru-belarri abiatu dena

Txillardegiri disgustu gehien ekarri dion gaia –jeltkideekiko edo batuaren etsaiekiko ahakarrek baino gehiago seguru asko, nolabait ere etxe barrukoa izan baitu istilua– ezkertiarrekiko edo estalinistekiko borroka luzea izango da. Sobiet Batasunak herri txikien kontra egindakoak salatu zituen behin eta berriz, eta sistema bera totalitarioa iruditzen zitzaion, giza askatasunaren aurkakoa edo. Gaur erraza dirudi jarrera horrek, baina lagunarte osoa marxista-leninistatik gorakoa zenean ez zen gozoa izango, ez zenez izango. Hala ere, egia osoa aitortzera, erantsi beharko dugu alternatiba abertzale sozialdemokrata bat egituratzeko saioetan porrot egiten duela orain arte behintzat Alvarez kamaradak. Historiaren hurrengo bueltaren zain gelditu beharko. ■



# IREKI BERRIA

[www.campingiratxe.com](http://www.campingiratxe.com)

948 55 55 55



**camping**

**IRATXE**

**camping**

**IRATXE**